

ZARAUZKO UDALEKO UDAL HILERRIAREN ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Hilerriaren deskripzioa.

Zarauzko Udal hilerriak hiru alde ditu:

- a) Alde zaharra: erdian hareharrizko gurutze bat duen gun e zirkular bat da. Gurutzearen inguruan heskaiez inguratutako bideak daude eta hauek hiru zona eratzen dituzte. Kanpoaldekoenean hesi perimetralari atxekitako panteoi eta kaperentzako lekua; erdikoa helduentzako lurpeko hobiratzeak egiteko; eta barnekoa, gurutzearen inguruan, haurrentzako lurpeko hobiratzeak egiteko.
- b) Lehenengo handitzea: harresi batek inguratutako esparru errektangular bat da; eje nagusia eta harresia barrutik inguratzen duen bidea eta zeharkako bideak ditu. Itxiturako harresiari atxikita panteoi iladak daude eta zeharkako bideek panteoiak dituzten partzelak erazten dituzte. Hezurtegi orokor bat ere badu, guztiz beteta dagoena, eta honen ondoan planta bakarreko eraikin bat biltegi eta hilotz gordetegirako erabiltzen dena.
- c) Bigarren handitzea: hilerriaren alde berria da, 1976an egin zen eta aurreko aldean jarraian dago. Harresi batek inguratutako esparrua da. Harresiari atxikita nitxoak daude eta barruko eremuan, diseinu ortogonalean, panteoiak daude. Lurpeko ehorzketetarako eremu txiki bat eta kaperarako erabiltzen den eraikin zirkular txiki bat ere badaude.

2. artikulua.- Hilerriaren titularitatea.

Zarauzko Udalaren jabegokoa den Zarauzko Udal Hilerria zerbitzu publikoari lotutako herri jabariko ondarea da, Herri Korporazioen Ondasunei buruzko Araudiaren 4. artikularen arabera (1372/1986 Errege Dekretua); eta Udalari

dagokio hilerriaren administrazioa, zuzendaritza eta zainketa lanak egitea beste aginte edo organismoen berezkoak diren eskumenen kalterik gabe.

3. artikulua.- Udalaren eginbeharrak.

Hilerria administratu, zaindu eta zuzentzeko eginbeharrei dagokienez honako hauek dagozkio Udalari:

- a) Hilerria antolatu, zaindu eta egokitzea.
- b) Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi dutenean, horretarako baimena eman eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.
- c) Hilobien kontzesioak eratzea eta hilobi-erabilera eskubideak, edozein direla ere, aitortzea.
- d) Dagokion ordenantza fiskalean legez ezarritako eskubide eta tasak kobratzea.
- e) Orain arte hartu diren edo aurrerantzean hartuko diren osasun- eta garbitasun-neurriak betetzea.
- f) Hilobien erregistroa egitea.
- g) Bere zerbitzura dauden langileak izendatu eta kargugabetzea.

4. artikulua.- Hilerriaren ordutegia.

Hilerria jendearentzat irekita egongo da Udalak, zerbitzuaren beharren arabera, ezartzen duen orduetan. Ordutegia hilerriaren sarreran ezarritako kartel baten bitartez jakinaraziko da.

Hobiratzeak eta hobitik ateratzeak ohiko ordutegiaren barruan egingo dira. Hala ere, hildakoaren familiakoek hilerriko arduradunari hiletaren orduaren berri eman beharko diote.

Partikularrek egiten dituzten edozein motako obrak ere jendearentzako irekita dagoen ordutegiaren barruan egingo dira.

5. artikulua.- Hilerrirako sarrera.

Beren egoeratik edo beste arrazoi batzuegatik leku horretako ordena eta lasaitasunari edo begirune-arauei eragin diezaieketen pertsonen sarrera eragotziko zaie.

Era berean, hilerrian ezingo da bertako ordena hautsi dezakeen animaliarik sartu. Ibilgailuak ere ezingo dira sartu, udal zerbitzuko ibilgailuak, ehorzketa enpresarenak eta hilerrian egin beharreko lanetarako materiala daramatenak izan ezik, baldin eta horretarako beharrezko diren baimen guztiak badituzte.

Hilerriko pasabide edo instalazioetan kalterik eginez gero, sortzaileak berak, edo tutireak, edo hala badagokio kalteen eragileen jabeak izango dira erantzule; eta bidezko denean, eragindako kalte hori berehala konpondu beharko dute edo sortutako galera horiek ordaindu.

6. artikulua.- Hilerraren garbiketa.

Hilerriko langileen ardura izango da hilerria orohar garbitu eta zaintzea; hilobiak, bertako apaingarriak eta instalazioak zaindu eta garbitzea, berriz, partikularren beraien kontura izango da.

Baldin eta partikularrek ez badituzte hilobiak garbi eta txukun zaintzen, eta udal zerbitzuak egoera eskasean daudela ikusten badute, lan hori egin dezala eskatuko diote hilobiaren titularrari. Titularrak ez badu ezarritako epean agindutakoa betetzen, Udalak berak egin ditzake lan horiek titularraren ordean eta haren kontura, Araudi honetan eskubideen iraungipenari buruz aurrikusten denaren kaltetan gabe.

II. KAPITULUA

Pertsonala

7. artikulua.- Pertsonalaren adskripzioa.

Hilerriko pertsonala aplikagarria den legerian pertsonalaren adskripziorako aurrikusitakoaren arabera hartuko da.

8. artikulua.- Pertsonalaren betebeharrak.

Hilerriko pertsonalak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Hilerria eta bere dependentziak garbitu, barneko eremua antolatu eta landareak eta arboladia zaintzea. Azken hau dagokion udal zerbitzuarekin elkarlanean egingo du.
- b) Toki horretan dauden gauza guztiak zaintzea; bai hilobien apaingarriak, bai zerbitzua emateko beharrezko elementu, lanabes edo erremintak.
- c) Hilotz-gordetegia, kapera eta gainerako dependentziak garbitasun egoera onean edukitzea.
- d) Hobiratzeko entregatzen zaizkion gorpu eta gorpuzkiak jaso eta maneatu, eta hala badagokie, gorpu-gordailuan gordetzea. Edonola ere, eskatu egin beharko du Udalak behar bezala betetako hobiratzeko baimena eta zerbitzua bete ondoren, bere adostasuna adieraziz dagokion udal sekziara itzuli. Guzti hori egin gabe ezin izango du inolaz ere hobiratzerik egin.
- e) Hobiratzeko eta hobitik ateratzeko, edo hala balegokio edonolako hilobiak itxi edo estaltzeko, beharrezko lanak egitea.
- f) Hilerriko giltza gordetzea, eta hilerria egunero ireki eta ixtea, Udalak besterik agintzen ez badu.
- g) Eremu horretako ordena egokia mantentzea.
- h) Behar diren hilobiak prest edukitzea; arrazoi hau dela eta ez da inoiz etengo lurperatzerik.
- i) Hobiratzea, hobitik ateratzea eta lekualdatzeak egiteko beharrezkoak diren agirien kopiak gordetzea, eta baita adierazten zaion edozein agiri ere.
- j) Alkateak eta beste aginte jurisdikzional batzuek beren kompetentzien arabera emandako agindu bereziak betetzea.
- k) Nitxo eta panteoiak hustu eta garbitzetik jasotako arropa eta tresnak suntsitzea.

III. KAPITULUA

Hobiratzeak, hobitik ateratzeak eta lekualdatzeak

9. artikulua .- Araudia.

Hildakoen edo gorpuzkinen hobiratzea, hobitik ateratzea eta lekualdatzeak gorpuen osasun zaingoari buruz aldi bakoitzean indarrean dauden arau eta lege-xedapenek ezarritakoaren arabera egingo dira.

Hobiratze, hobitik ateratze eta lekualdatze guztiak Udalaren baimenarekin egingo dira, eta beharrezkoa denean, dagokien osasun- eta judizial-agintarienarekin.

Hildakoen edo gorpuzkinen hobitik ateratzea hilerrian bertan lekualdatu eta berriro hobiratzeko egin daiteke, edota beste batera eramateko.

10. artikulua .- Udalaren baimena.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Udalak baimena hiru aletan egingo du, eta hau hilerriko arduradunari aurkeztuko zaio dokumentazioa behar bezala dagoela eta hobiratzea, hobitik ateratzea edo lekualdatzea bidezkoa dela egiaztatzeko.

Udalaren baimenean ondorengo datuak zehaztuko dira:

- a) Hildakoaren izen-abizenak.
- b) Heriotzaren data.
- c) Eskatzailearen izen-abizenak eta hildakoarekin duen harremana.
- d) Emango den zerbitzu mota (hobiratzea, hobitik ateratzea edo lekualdatzea).
- e) Hobiratzea, hobitik ateratzea edo lekualdatzea non egingo den.

Udalak ematen dizkion hiru aleetatik, hilerriko arduradunak Udalari baimenaren ale orijinala itzuliko dio, behar bezala sinaturta, bertan ezarritakoa behar bezala bete duela egiaztatzeko, eta dagokion Erregistro liburuan idazteko. Bigarren ale sinatua familiakoei itzuliko zaie, eta hirugarrena hilerriko bertako bulegoetan artxibatuta geratuko da.

Udalaren baimena lortzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

1. Hobiratzea denean:

- a) Normalizatuta dagoen eskaera-orria beteta.
- b) Dagokion epaitegiak luzatutako hobiratzeko baimena.
- c) Gorpua panteoi batean hobiratzeko, hilobi-erabilera eskubidearen kontzesioaren titulua. Hildakoa eskubide-titularra ez denean, honen edo bere oinordekoen baimena aurkeztu beharko du.
- d) Gorpua beste herri batetik lekualdatu bada, dagokion Osakidetzaren baimena.
- e) Heriotza naturala ez denean, Udal-epailearen edo eskuduna denaren baimena.
- f) Dagokion ordenantza fiskalean ezarrita dauden tasak ordaindu dituenaren ordainagiria.

2. Hobitik ateratzea denean:

- a) Normalizatuta dagoen eskaera-orria beteta.
- b) Osakidetzaren baimena.

3. Hilerri barruan egindako lekualdatzea:

- a) Normalizatuta dagoen eskaera-orria beteta.
- b) Gorpuzkinak panteoi batean hobiratzeko, hilobi-erabilera eskubidearen kontzesioaren titulua. Hildakoa eskubide-titularra ez denean, honen edo bere oinordekoen baimena aurkeztu beharko du.

- c) Dagokion ordenantza fiskalean ezarrita dauden tasak ordaindu dituenaren ordainagiria.

IV. KAPITULUA

Hilobi-erabilera eskubideak

11. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidearen definizioa.

Hilobi-erabilera eskubidea hilerriko hilobi ezberdinak erabiltzeko kontzesioa da, eta hau Udalak emango du, Araudi honen 2. artikuluari jarraiki bera baita jabetzaren tiltularra.

12. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidearen sailkapena.

Nahiz eta hilobi mota ezberdinak izan, eta baita hauek erabiltzeko epeak ere, hilerriko hilobien erabilera-eskubide guztiek aldibaterako izaera izango dute.

13. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidearen tasak.

Hilobi-erabilera eskubidearen titularitatea edukitzeak berarekin dakar zerga bat ordaintzea, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

14. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidearen kontzesioa eta erregistroa.

Hilobi-erabilera eskubidearen kontzesioa Udalak ziurtatuko du berak emandako titulu baten bidez. Era berean, hau bermatuta geratuko da dagokion Erregistro Liburuan idatziz.

15. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidearen transmisioa.

Hilobi-erabilera eskubidearen kontzesioak ez dakar salerosketarik. Udalak gorpua edo gorpuak epe jakin batean, hilobian egotea errespetatu behar du. Hori dela eta, familiak abandonatutako hilobi oro, Udalaren jabarira itzuliko da.

Aurrean zehaztutako kontzesioa ezin izango da salerosi, ez aldatu, ezta bestelako trukaketarik egin ere. Hala ere, mortis causaz egindako eskualdaketak onartuko dira, Udalak Araudi honetan zehaztutakoaren arabera horretarako baimena ematen badu. Hori dela eta, hilobi-erabilera eskubidearen titular orok bere hil ondorenerako onuradunak izenda ditzake.

Titularrak onuraduna berariaz izendatzen ez badu, hilobi-erabilera eskubidearen titulartasuna testamentuzko oinordekoiei transmitituko zaie, eta testamendurik ez badu egin lege zibilean ezarrita dagoen oinordetza ordenaz transmitituko da. Eskubide bereko oinorde bat baino gehiago badago, hauek elkarren arteko adostasunez Udalaren aurreko ordezkaria izendatu beharko dute, Araudiaren aurreikuspenak betetzearen erantzule gisa; eta adostasunik ez badago, Udalak, zozketa bidez, espedientean agertzen diren guztien artean bat izendatuko du.

Hilobi-erabilera eskubidearen titular berriak/ek, urtebeteko epean, hilobi-erabilera eskubidea bere(n) izenean jartzea eskatu beharko du(te), eta honetarako dagokion kontzesioaren titulua eta transmisioa egiaztatzen duten gainerako agiriekin aurkeztu beharko du.

16. artikulua.- Tituluetako aldaketak edota berjaulkipen berria egitea.

Hilobi-erabilera eskubidearen tituluetan antzematen diren izen-akatsak edo beste edozein motakoak titularren eskariz zuzenduko dira, aldezturik hauek justifikatu eta egiaztatu ondoren. Egindako aldaketa hauek Hilobien Erregistro liburuan adierazi egingo dira.

Edozein arrazoi dela ere, titulu bat narriatu egin bada, behin narriatutakoa itzuli ondoren berria egingo da.

Substraitu edo galdu egin bada, dagokion espedientea izapidetu ondoren, bikoitza egingo da titularraren izenean.

17. artikulua.- Hilobi-erabilera eskubidea galdu edo iraungitzea.

Udalak hilobi-erabilera eskubidea iraungitzat edo galdutzat jo eta eskubide hori bereganatzeko aukera du ondoko kasuetan:

- a) Hilerria aurri egoeran badago. Aurri egoera honek eta ondoriozko iraungipenak dagokion administrazio espedientea izapidetzea behar izango du.
- b) Hilobia abandonatuta badago. Abandonatutzat hartuko da titularra hil eta eskubidearen titular berriak urtebeteko epean bere aldeko transmisioa egin dadin eskatzen ez badu.
- c) Goiko parrafoan adierazitako transmisioa egin dadila eskatuta ere, hilobia egoera eskasean badago, Udalak adierazitako epean, berau egoera egokian ez bada jartzen.
- d) Kontzesioari ezarritako epea bukatu eta, hala behar izanez gero, bi hilabeteko epean hura luzatzea eskatu ez badu.
- e) Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasak ez badira ordaintzen.
- f) Titularrak eskubide horri uko egiten badio.
- g) Antza, kontzesioaren utziera edo hilobiaren mantenuan utzikeria izan bada. Aurrekotzat hartuko da itxuraz hilobia ez erabiltzea edota hilobiaren mantenerako gutxieneko lanak ez egitea. Arrazoi honegatik lehengoratzeko, dagokion administrazio espedientea izapidetuko da.

18. artikulua.- Hilerraren ixtea.

Hilobi-erabilera eskubideen kontzesioaren epea hala zehaztuta badago ere, edozein arrazoi dela eta aipatutako epea amaitu aurretik hilerria itxi behar bada, kontzesioa amaitu arteko epeagatik titularrek kalteordainak jaso ahal izango dituzte, baina ordaindutako tasaren zati proportzionalean soilik, eta kontzesiodunak egindako obra edo instalazioak aintzat hartu gabe.

V. KAPITULUA

Banako nitxoak

19. artikulua.- Banako nitxoak.

Banako nitxoak hilerriaren bigarren handitzeko horma perimetralean dauden zerraldoak gordetzeko lekuak dira. Banako nitxoan xedea heriotza gertatu ondoren hildakoak jagon eta gordetzea da.

20. artikulua.- Banako nitxoan kontzesio epealdia.

Udalak eraikitako nitxoan erabilera eskubidearen kontzesioak aldi baterako izaera izango du, eta 10 urte luzaezineko epeaz emango dira. Aurrekoa dela ere, Ordenantza hau indarrean sartu artean egindako emakiden epea, 15 urtekoa, iraungitu arte errespetatuko da.

Adierazitako aldi baterako izaerak berarekin dakar, kontzesioaren epea bukatutakoan, familiakoek gorpuzkinak ez badituzte eskatu beste hilobi mota batera lekualdatzeko, Udalak gorpuzkinak hobitik ateratzea eta hezurtoki orokorrera lekualdatzea xedatuko duela. Horrela bada, nitxoetan aurkitzen diren objektu edo gauzei dagokionean, Kode Zibilaren 615. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

21. artikulua.- Banako nitxoan erabilera.

Banako nitxoek banako erabilera izango dute, eta hori dela eta ezin izango da erabili hobiratze bat baino gehiago egiteko, ez hobitik ateratzen datozen gorpuzkinak gordetzeko, ezta erraustutako hildakoen errautsak edo gutxitutako gorpuzkinak gordetzeko ere.

22. artikulua. Banako nitxoan ixtea.

Banako nitxoak horrela itxiko dira:

- a) Hilerriaz arduratzen den pertsonalak, uralita, arbel edo egokiagoa izan daitekeen beste material baten bidez itxiko ditu.
- b) Kontzesioaren titularrak behin-betiko apaindurazko estalkia jarriko du Udalak adierazitako berezitasunen arabera.

VI. KAPITULUA

Panteoiak

23. artikulua.- Panteoiak.

Panteoiak hilerriko hiru aldeetan (alde zaharra, lehenengo handitzea eta bigarren handitzea) dauden lurrazpiko eraikinak dira. Hauen xedea aldiberean elementu bat baino gehiago jagon eta gordetzea da; elementu hauek zerraldoak, nahiz errautsen kutxak, zein gorpuzkinen kutxatilak izan daitezke.

24. artikulua.- Panteoien kontzesio epealdia.

Panteoien erabilera eskubidearen kontzesioak aldi baterako izaera izango du, eta 50 urte luzaezineko epeaz emango dira. Aurrekoa dela ere, eta kontuan hartu gabe kontzesioak adjudikatu izandako data, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik 50 urteko iraupena izango dute orain artean dauden kontzesio guztiek.

25. artikulua.- Panteoien kontzesioaren luzapena.

Panteoietan hobiratzeko eskubidearen kontzesioaren epea amaitutakoan, lehengo kontzesioaren titular beraren aldeko epealdi berria eska daiteke; hau gehienez ere 25 urteko eperako eman ahal izango da, Udalerrian dauden beharrak aztertu ondoren, eta luzapena eskatzen duenean indarrean dagoen ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera, dagozkion eskubideak ordaindu ondoren.

26. artikulua.- Kontzesioa iraungituta duten panteoien kontzesio berria.

Araudi honen 17. artikuluan adierazten diren arrazoiengatik kontzesioa iraungituta duten panteoiak Udalak bereganatuko ditu; eta, egokiak diren

barrualdeko eta kanpoaldeko garbiketa lanak egin ondoren, Araudi honen 24 artikuluan adierazitako baldintzetan esleitu ahal izango dizkie titular berriei.

27. artikulua.- Panteoien edukiera.

Panteoiaren edukierak ahalbidetzen duen gorpu kopurua hobiratu ahal izango da, eta hilobi-erabilera eskubidearen titularrak ahalmena izango du gorpuak kontzesioaren epea amaitu arte bertan uzteko; gorpuzkinak murrizteko data horretara arte panteoiko bertako hezurtegian gera daitezen; edo gorpuzkiak hobitik ateratzeko, aldez aurretik erreglamenduzko baimenak lortu eta ordenantza fiskaletan ezarritakoaren arabera dagozkion eskubideak ordaindu ondoren.

28. artikulua.- Panteoiak ireki eta ixtea.

Panteoiak ireki eta ixteko harlauzen lekualdatzea hilerriko pertsonalak egingo du bere kontura.

VII. KAPITULUA

Kolunbarioak

29. artikulua. Kolunbarioak.

Kolunbarioak hilerriko alde zaharrea dauden errautsen kutzak gordetzeko lekuak dira. Kolunbarioen xedea da, behin hildakoak erraustu edo gorpuzkinak errauts bihurtu ondoren, hauek jagon eta gordetzea.

30. artikulua.- Kolunbarioen kontzesioa epealdia.

Kolunbarioen erabilera eskubidearen kontzesioak aldi baterako izaera izango du, 25 urterako emango da, eta 10 urteko epeko luzapena izan dezake.

31. artikulua.- Kolunbarioen erabilera.

Kolunbarioek banako erabilera izango dute, eta, beraz, hilotz bakarraren errausketatik edo gorpuzkin bakarraren errauts bihurketatik eratorritako errautsak gordetzeko soilik izango dira.

32. artikulua.- Kolunbarioen ixtea.

Kolunbarioak horrela itxiko dira:

- a) Hilerriaz arduratzen den pertsonalak, uralita, arbel edo egokiagoa izan daitekeen beste material baten bidez itxiko ditu.
- b) Kontzesioaren titularrak behin-betiko apaindurazko estalkia jarriko du Udalak adierazitako berezitasunen arabera.

VIII. KAPITULUA

Banako hezurtegiak

33. artikulua. Banako hezurtegiak.

Banako hezurtegiak hilerriaren alde zaharrearantz gorpuzkinen kutxatilik gordetzeko dauden lekuak dira. Hezurtegi hauen xedea da behin gorpuzkinak nitxoetatik, panteoietatik edo lurretik deshobiratu ondoren hauek jagon eta gordetzea.

34. artikulua.- Banako hezurtegien kontzesio epealdia.

Banako hezurtegien erabilera eskubidearen kontzesioak aldi baterako izatera izango du, 25 urterako emango da, eta 10 urteko epeko luzapena izan dezake.

35. artikulua.- Banako hezurtegien erabilera.

Banako hezurtegiek banako erabilera izango dute, eta, beraz, hilotz bakarraren gorpuzkinak gordetzeko soilik izango dira.

36. artikulua.- Banako hezurtegien ixtea.

Banako hezurtegiak horrela itxiko dira:

- a) Hilerriaz arduratzen den pertsonalak, uralita, arbel edo egokiagoa izan daitekeen beste material baten bidez itxiko ditu.
- b) Kontzesioaren titularrak behin-betiko apaindurazko estalkia jarriko du Udalak adierazitako berezitasunen arabera.

IX. KAPITULUA

Hezurtegi orokorra

37. artikulua.-Hezurtegi orokorra.

Hezurtegi orokorra da, behin zegokion hilobi-erabilera eskubidearen kontzesio epealdia igaro ondoren, familiakoek eskatu ez dituzten gorpuzkinak gordetzeko hilerraren alde zaharrearantz egokitutako lekua. Hezurtegi orokorraren xedea da behin gorpuzkinak nitxoetatik, panteoietatik edo lurretik deshobiratu ondoren, hauek mugagabeko denboraldiaz jagon eta gordetzea.

38. artikulua.- Hezurtegi orokorraren erabilera.

Hilobi-erabilera eskubideen kontzesio epeak amaitzen direnean, Udalak eskubide hauen titularrei jakinaraziko die. Titular hauek ez badute interesik azaltzen hilobi-erabilera eskubideak luzatzeko edo beste eskubide batzuk eskatzeko, kasuan kasukoa, Udalak gorpuzkinak hezurtegi orokorrera lekualdatuko ditu. Lekualdatzea ez da ordaindu behar.

X. KAPITULUA

Apaindurari buruzko xedapenak

39.Artikula.- Titularren betebeharrak.

Panteoi, nitxo, banako hezurtegi, kolunbario eta lurra erabiltzeko eskubideen titularren betebeharra izango da elementu hauek higiene-, apaindura- eta kontserbazio-egoera egokian mantentzea.

Titularrek ezin izango dute hilerriaren gaur egungo estetika hautsi dezakeen elementurik jarri; hori dela eta, hilarri, lauza, itxitura eta gainerako apaindura-elementuek gaur egun daudenen irizpide estetiko berak jarraituko dituzte.

40. artikulua.- Udalaren ahalmena.

Zarauzko Udalak ahalmena izango du etorkizunean arau zehatzak garatzeko hilerrian erabili ahal izango diren lauza, panteoi itxitura, hilarri, hizki e.a.en erduei dagokionean.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria.

Araudi honetan zehazten diren zerbitzuak Udalak zuzenean kudeatu ahal izango ditu, edota kontzesio bidez, honetarako dagokion administrazio-kontratuaren espedientea izapidetu ondoren.

Bigarren xedapen gehigarria.

Araudi honetan zehazten ez dena Toki-jaurbideari buruzko legediak eta gorpuen osasun zaingoaren araudiak adierazitakoari jarraituz araupetuko da.

Aldibaterako xedapenak

Aldibaterako lehenengo xedapena.

Araudi hau indarrean sartzen denean, heredentzia bidez edo beste titulu baten bidez, hilobi-erabilera eskubidea jasotzeko eskubidea duten pertsonen eskubidearen transmisioa egitea eskatzen ez badute, urtebeteko epea izango dute horretarako, Araudi honen 15. artikuluan adierazitako baldintzetan. Behin epe hori igaro ondoren, eskaera egin ez bada, hilobi-erabilera eskubidea galdutzat joko da eta Udalak hilobia bereganatuko du.

Azken xedapena

Araudi hau indarrean sartuko da testua bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost eguneko epean.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi hau, hasierako izaeraz, 1998ko urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 1998ko otsailaren 4a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Araudi hau behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1998ko maiatzaren 14an (zk. 88) argitaratu zela.

Zarautz, 1997ko maiatzaren 18a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi honen 15., 22., 32. eta 36. artikuluen aldaketa, hasierako izaeraz, 1999ko martxoaren 4an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 1999ko martxoaren 8a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Araudi honen aldaketa behin-betiko onestua geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1999ko ekainaren 8an (zk. 106) argitaratu zela.

Zarautzen, 1999ko ekainaren 9an
Idazkaria